

Ondarribian Uztailaren 3.an 1885.an

On Antonio Arzác.

Chit arrigarriak izandu dira «Euskal-Erriaren» Zuzendari Jauna, emen egin diran eleizkizunak Mariaren Alabak bidagoan egin duten etorrerarekin Guadalupe-ko Ama Birjiñarengana; eta ez da berealakoan aztuko uri onetan, zeñen biotz beroarekin kantatzen ziozkaten euren alabantzak, ainbeste bidean etorri ziran neskach garbiak, egin arren aiñ denbora euritsua bespera eguerdiraño. Sinispenik guchiena duenak esan lezake, Guadalupe-ko Ama Birjiñak eskatu ote zion bere Seme Jainkotiari urra zitzala zerupeko laño euri iñurleak eguzkiaren bidez, eta para eguraldi eder bat bidagoa egiñ arte; zeren laster berri-ró asi zuen euria, biotz-berako aur oek euren eginkizunak bukatu zituztenean.

Bespera eguerdian eman zan eleiz-pesta onen berria, eleiz-nagusian eta urian diran eleizcho guzietako ezkillak joaz, zeñak berriro errepikatu ziran bederatzietan, sutu zitzaten euren otsorruakin Ondarribi guzien eta besperatik etorri ziran neskacharen biotz biguñak; Illuntzean kantatu zuten Mariaren emengo Alabak Salbe bat otsandiró, eta baita ere beste koplá batzuek Ama Birjiña Konzepziokoaren aurrean, aiñ egoki, ezik ziruriten, zeruko aingeruak euren Erregiñari kantari: Eleiza zegoen apaindua eta argitua guchitan bezela; bada kontatu nituen 13 argi-armiarma eta Jainkoak daki zenbat argi eta lore-ontzi zirala arkitzen gañera aldare nagusian Jesusen biotzaren ingurumarian, eta Errosariokoan, Konzepzioko Birjiña Amaren alboetan.

Konpesa eta komulgatu ziran besperatik Mariaren emengo Alabak, atzerrikoai lagundutzeko urrengo egunean, eta oek ere artu zuten Jesus-en Gorputza batzuek emen eta besteak Guadalupen, iru millaen batek noskiro, guchi gora bera.

Zazpiterdietan irten zuen prozesioak Guadalupera, eta igo zuen popez eta kontentuz len baña len ikusi naian kabi chulo santuan arki-

tzen dan Ama Birjiña belcharana, onen iturria eta aintzira, biotz donetiak Jesus eta Mariarenak, Gurutz-mendia, Sarjin santua eta beste gauza chit egoki asko. Egiñik emen ere prozesioa eleizchoaren inguruan orain esan dedan imajñarekin, kantatu zuten meza ospatsu bat emengo kapillak edo ostabatzak eta Donostiako kantore eder batzuek, eta meza eman zuan Urizar Jaunak, zeña baizan etorri Obispo jaunaren orde.

On Alfonso Zabala-ko Jaun euskarazaleak egin zuen sermoia Aitorren izkuntz paregabeen; eta aiñ egoki, ezik ziruruen, egiaz, Espiritu Santuaz gogargitua. Asi zan, ongiatorri maitatsu bat egiñaz an arkitzen ziran 6000 aditzalleai; eta esanaz, kristaua dagoela obligatua, batezere lendabiziko urteetan, Jaungoikoari eskeintzea obra on guziek, Espiritu Santuak agintzen duen bezela Eklesiastikoan XII.^{garren} buruan.

Azaldu zuan abian, pamilian eta munduan zenbat dezakean emakumeak gure animen salbaziorako; erachiaz, egin ditzagula gure errezoak eta eginkizun on guziak Ama Eleizaren eta Euskal-erriaren onerako, nondik asi ziran Españaetik botatzen Maomaren umeak, ibar oek beti izan diralako Gurutzearen alde: esan zuen ere, bazter eder au atzoraño beti izan zala libre eta zorioneko Gurutz eta Arbolaren gereizpean, zeñak diran arkitzen alkartuak antziñeko denboretatik; Aritz orri erortzen zaskion orriak dirala esperantz eta pozikabeko emakume alargun bati isurtzen zaiozkan negar malkoak, eta bildur zala berriro ikusiko ote degun Arbola Santu orren itzalik. (Nik diot baietz.) Eta etzuela bildur ori bakarrik, ezik fedea ere dijoala oztutzen, eta etsaiak geitutzen, arriskoan paratzen dutelarik erlijioa; eta errezzatu genezala oen onean, izanaz beti gure aurrekoen antza.

Suz eta naitasunez beterik biotza, oju egiten zuen: Gurutze orretan ill zan aren odolak bustiko ditu berri berritik gure Aritz Zarraren sustraiak; loretuko dira orren adarrak, eta izango gera libreak; bai, libreak eta zorionekoak Gurutz eta Arbola orren itzalpean. Eta gure arkaitz eta basoetan, (koplari baten gisa zion), gure ibar eta zelaieetan, gure erri eta baserrietan adituko dira berriró iñoren kutizirik ez duten euskal-soñuak.

Gauz oek guziak iristeko, zion, ez degula arkituko Guadalupe-ko Ama Birjiña baña bitarteko obeagorik, eta erregutu dezaio gula maiz: eta eskerrak emanaz Ondarribi guzien partetik, eta batezere bidago au moldatu duen gure Bikario Jaun egille aundiaren parretik aurrean

zeuzkaskien guziaz, bukatu zuen arriturik uzten zituelarik bere enzunleak aren mingaiñ guchi bezelakoak.

Arratsaldean kantatu zizkioten mireskiró bespera eta beste zenbat kanta eder Mariari; eta seietan sartutzen zan prozesioa eleiz-nagusian kontuz eta modestirik aundienarekin, non kantatu zuen ospatsuró kapillak *Te Deum*, eta Mariaren Alabak joaketa edo despedida bat aiñ gogaberatia, eze aski zan beratzeko biotzik gogorrena. Eleizatik irretzean ekin zioten euren bideari kantatuaz alabantzak Mariari, eta illuntzean geratu zan Ondarribia egunoroko ichurakin, preskañiak egiñaz zeruaru urteoro egin dediela aiñ bidago egoki- Guadalupe-komendira, Birjiña Amari alabantzak kanta eta Euskal-erriarentzat zorionak eskatzera.

Jende asko inguratu arren, batezere arratsaldean, prozesioaren jechiera ikustera Bidasoaren ertzetako errietatik, etzan izan aserrerik chikiena: ez ordi bat ikusi zan eta ez itz loi bat aditu zan zenbat kaskariñ etori arren denpora pasa leku guzietan izan oi diran bezela; naiz ez asko; eta onek esaten du, lumarik ongi zorroztuena esango lukean baña egokiago, euskal-erriko oiturak zeñen gaitzikabeak diran.

Ama Birjiñari egin dizkioten erregaloak dira nik dakizkidanak beintzat: gurutze bat, sei kandelabro aundi, alba bat, alfonbra bat, bi kanelero, meza ematen dan liburua bere librai edo atrillakin eta lau loreontzi euren lorakin.

Iruditzen bazaitzu, Zuzendari Jauna, egoki, gaizki izkribatutako lerro oek argitaratzea, eskerrak ematen dizkitzu aurretik zure adiskide eta euskara-zale

OTAEGI-KO KLAUDIO-K.

